

EGILEAK: Arabako SEADen Lagunen Elkarteko Josune Bejarano, Lorena Fernández eta Mentxu Cámara

PORTADAREN IRUDIA: Charo de Miguel Prada

EUSKERAZKO HITZULPENA: Nerea Gallastegi

MARRAZKIAK: Enrique Morente, Mikel Valverde, Itziar Villanueva

DISEINUA ETA INPRIMATZEA: San Martín impresión Digital

ARGITALETXEA: Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava y el Ayto. de Vitoria-Gasteiz.

1. Argitalpena 2008ko Urria

Legezko Gordailua: VI-372/08



Aurkibidea

- AURKEZPENA	4
- "SAHARA EZAGUTZEN" PROIEKTUAREN AZALPENA	5
- NOR DA DEILUL?	6
- JARDUERAK 1-12	7 - 17





Unitate Didaktikoaren Aurkezpena



Sarrera

Aurkezten dizuegun hezkuntza-materiala (Saharar Kondairak, Unitate Didaktikoa eta Jokoa) Arabako SEADen Lagunen Elkarteak Vitoria-Gasteizko Udalaren finantzazioari esker prestatutako "SAHARA EZAGUTZEN" hezkuntza-proiektuaren zati da.

Gure elkarteak orain arte garapenerako lankidetzaren eta sentsibilizazioaren arloan lan egin du batez ere, baina uste dugu gizartean baloreen benetako aldaketa izan dadin garapenerako hezkuntzaren arloan lanean hastea ezinbestekoa dela. Hori dela eta, aurkezten dizkizuegun baliabide hauen bidez egingo dugu gure ekarpen txikia garapenerako hezkuntzan.


Ikasturtean zehar gure elkartera irakasle asko hurbiltzen dira hezkuntza-material eske elkartasunarekin, kulturartekotasunarekin eta bereziki Saharar Herriarekin zerikusia duten gaiak landu ahal izateko.

Eskaera horri erantzuteko sortu dugu "Sahara ezagutzen" proiektua eta honako material didaktiko hauek: Saharako kondairen liburua eta gida didaktikoa (lehen hezkuntza osatzen duten hiru zikloetarako materiala duena) eta "Karabana" lankidetzajolasaren taula.

Ekarpen txiki honek neska-mutikoei gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzeke balioak transmititzeko balio izatea espero dugu.

Agur bero bat.





Proiektua: Sahara Ezagutzen



Helburua

Sarreran aipatu dugun helburu orokorraz gain, jarduera didaktikoak sortzera bultzatu gaituzten beste helburu zehatzago batzuk aipatu nahi ditugu:

- Ikasleek beste kultura batzuk ezagutzeko aukera izatea.
- Ikasleek saharar herriak bizi duen egoera ezagutzea.
- Ikasleen artean beste kulturekiko lankidetzeta eta elkartasuna bultzatzea gure gizartea aldatu ahal izateko.



Edukiak

Alegia gisako saharar kondairen bidez (protagonistak diren animalien bitartez) ikasleei gertaerak eta harremanak aurkeztzen zaizkie irakurri ohi duten literaturan ohikoak ez diren paisaietan. Hori esker Sahararen berri izaten hasiko dira neska-mutikoak.

Deilul Saharako herri-literaturako pertsonaietako bat da eta bere gidaritzapean ohiturak belaunaldi batetik bestera alegien eta kondairen bidez transmititzen dituen herri nomada hau ezagutzen joango dira ikasleak. Deilulek aurkeztuko dizkie Sahara, Saharako kultura, jendea, etab. eta baita alegia bakoitzak ezkututzen duen irakaspena ere.

Material didaktikoaren fitxetan landu beharreko gaiak eta helburuak agertzen dira: elkartasun baloreekin zerikusia dutenak nahiz saharar herria hobeto ezagutzeko balio dutenak. Neska-mutikoek Deilul izango dute lagun fitxa guztietan eta hainbat jarduera proposatuko dizkie.

“Karabana” jokoaren bidez saharar herria gertuagotik ezagutzeko aukera izango dute. Jokoari esker, Tindufen (Argelia) dauden errefuxiatuentzako kanpamentuetan bizi diren 200.000 pertsona baino gehiago zein egoeratan bizi diren jakin ahal izango dute, izan ere, jokoaren bidez pertsona hauek eguneroko bizitzan zein egoerei aurre egin behar dieten ikusi ahal izango dute.



Jarduerak

Jardueren helburua gela-taldean lan egitea da.

Jarduera guztietan agertzen dira talde-dinamikarekin edo lankidetzarekin zerikusia duten proposamen metodologikoak, izan ere, metodologia hau transmititu nahi diren balioekin bat datorrela uste dugu.



Baliabide Materialak

Honako hauek dira eskura dituzuen materialak:

Saharako kondairen liburua eta DVDa.

Proposamen didaktikoak dituen liburua eta, horrekin batera, jarduerak egin ahal izateko zenbait mapa eta argazki.

“Karabana” joko.




Ebaluaketa

“Ebaluaketak hainbat helburu izan ditzake... ikaskuntza prozesua bideratzeko erabil daiteke ikasleak motibatzen dituelako eta egindako lana finkatzen laguntzen duelako”. (Luis Felipe Gómezen La importancia de la evaluación).

Ebaluaketak bi zati izan behar dituela uste dugu. Lehenengo atalean umeei Saharari buruz zer dakiten ebaluatuko dute eta bigarren atalean, behin proposamen didaktikoak landu ostean, zer ikasi duten ebaluatuko dute. Hori dela eta, ebaluaketa egiteko eredu gisa erabili daitezkeen fitxak ere sartu ditugu.





Deilul



Basamortuko Jeinez...

Ba al daki norbaitek zer den basamortuko jeinu bat? Ez?

Eta ba al dakizue benetan zer den jeinu bat? Jeinu bat gauza miragarriak, ia sinesgaitzak, egiten dituen pertsona bat da. Urteen poderioz eta mundu osoa aztertuz pilatutako ezagutzari esker egin ditzake gauza miresgarriok. Oro har, ez dira onak edo gaiztoak, beren lana egiten dute, besterik ez, eta beren lana irakastea da. Baina, zer irakasten dute? Bada beraiekin topo egiten duen pertsonaren arabera da hori. Esate baterako, pertsona berekoi batekin topo egiten badute, eskuzabalagoa izaten irakatsiko diote. Oso lotsatia den pertsona batekin topo egiten badute, ordea, irekiagoa izaten irakatsiko diote.

Jeinuen gomendioak eta ikasbideak jakinduriaraz eta tradizioari buruzko ezagutzaz beterik daude.

Orain badakizu zer den jeinu bat, beraz, errazago ulertuko duzu zer diren basamortuko jeinuak. Jeinu hauek basamortuan bizi dira eta hantxe aurki ditzakegu. Baina basamortua hain da handia! Nondik hasi? Horregatik, normalean jeinuak zu aurkitzen zaitu eta ez alderantziz.

Eta aurkitzen bazaitu, zerbait irakatsi nahi dizulako da eta beraz, zuk zerbait ikas dezakezulako.

Beharbada dagoeneko igarri duzu, baina Aladinoren "Lanparako jeinua", basamortuko jeinu bat zen eta Arabiako eskualdeko basamortuan bizi zen.

Jakingo duzue, jeinu hori lanpara baten barruan bizi zen eta bere itxura oso berezia zen. Baina horrek ez du esan nahi basamortuko jeinu guztiek antzeko itxura dutenik, jeinu bakoitzak bere ezaugarri propioa eta bereziak ditu.



Deilul, Saharako Basamortuko Jeinua

Deilul Saharako basamortuan, Afrikan, bizi den jeinua da. Basamortuko gizon nomaden itxura du. Darrá (Saharako tunika tradizionala) eta zeruaren koloreko turbante urdina eraman ohi ditu jantzita. Turbateak gris koloreko bere begiak uzten ditu agerian eta bere aurpegia antzeman dezakegu.


Inork ez daki zein adin duen Deilulek, baina adineko pertsona batzuek beraiek gazteak zirenean Deilul jada zaharra zela esaten dute.

Inork ez daki non bizi den edo familiarik duen. Baina Saharako basamortuko duntan zehar oinez ibiltzen omen da.

Deilul saharar herria ezagutu dezagun etorri da, eta kultura horretako kondairak eta alegiak ekarri dizkigu. Kondaira horien bidez sahararrak nola bizi diren, zein kultura duten eta beste gauza asko ezagutu ditzagun nahi du.



1. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Jarduera hau Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleei zuzenduta dago.

Lehenengo zikloko ikasleekin lan daiteke, baina mapak erabili ahal izateko beharrezkoa den abstrakzio gaitasuna kontuan hartuta, mapen ordeztu lehendabizi munduko bola erabiltzea eta ondoren mapetara jotzea gomendatzen dugu.

Materiala

- Munduko, Afrikako eta Saharako mapak.
- Paisaia ezberdinen argazkiak.
- Papera eta errotuladoreak.

Metodologia

Lana talde txikitik. Egindakoa talde handian komunean jarri eta ondorioak atera.

Jardueraren nondik norakoak

Deilulek bere herrialdea, Sahara, hobeto ezagutzeko gonbita luzatzen digu. Horretarako honako jarduera hau proposatzen digu:

Ikasleak taldean antolatuko dira eta talde bakoitzari, alde batetik, munduko mapa bat eta Afrikako eta Saharako mapak emango zaizkio eta, bestetik, zenbait paisaiaren argazkiak.

Afrika munduko mapan kokatzeko eskatuko zaie eta ondoren Sahara Afrikako mapan kokatzeko.

Jardueraren lehen atal hau bukatu ostean, argazkietako paisaiei buruz hitz egiteko gonbita egingo zaie eta bi taldean banatzeko eskatuko zaie: Saharara joaten badira beren ustez bertan topatuko dituztenak alde batetik, eta han aurkituko ez dituztenak bestetik.

Bi taldeak egin ahal izateko kide guztiek parte hartu behar dute eztabaidan eta adostasun batera iritsi behar dute denen artean.

Bildutako informazioa talde handian jarriko da komunean eta talde txiki bakoitzeko ordezkariak argazkiak nola eta zergatik banatu dituzten azaldu beharko du.


Talde guztietako ordezkariak hitz egin ostean, kokapen zuzenena duen mapa eta denen artean egokitzen jo dituzten paisaiak hautatuko dira.

Amaitzeko, Sahararen berri emateko, bertara nola bidaiatu eta bertan zer ikusi jakinarazteko, horma-irudi bat egingo dute ikasle guztien artean

ERANSKINA: Mapak eta argazkiak.



2. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleekin egin daiteke.

Materiala

- Saharako kondairen liburua edo DVDa.
- Papera, marrazteko.
- Margoak eta/edo errotuladoreak.

Metodologia

Saharako kondairen liburua irakurri edo DVDa ikusi. Lankidetzaz jarduera.

Jardueraren nondik norakoak



Aurreko jardueran Deilulek bere herrialdea ezagutzeko gonbita luzatu digu. Baina herrialdeetan pertsonak bizi dira. Deilulen herrialdeko jendea nolakoa den, bere hizkuntza, bere ohiturak, etab. ezagutzeko garaia da. Horretarako Deilulek honako jarduera hau proposatzen digu:

Saharako kondairak entzutean (edo irakurtzean), beharbada hirurak berdin hasten direla konturatu zarete. Saia zaitzete Saharari buruzko pistak ematen dizkiguten eta herrialdea nolakoa den irudikatzen laguntzen diguten hitzak gogoratzen.


Taldeak egingo ditugu. Ikasleak kondairetan agertzen diren Saharari buruzko hitzak gogoratzen saiatuko dira eta zerrenda bat egingo dute. (Talde guztiei kondaira guztietako hitzak bilatzeko agindu dakieke edo talde bakoitzari kondaira bateko hitzen zerrenda egiteko).

Zerrenda egin eta gero, talde bakoitzak Sahara, bertako jendea, etab. nola irudikatzen duen pentsatu eta marrazki bat egin beharko du.

Ondoren, talde bakoitzak bere zerrenda eta marrazkia aurkeztuko die gainontzeko taldeei eta talde guztien artean zerrenda bakarra osatuko dute eta zerrendako hitz guztiak irudikaturik agertzen diren horma-irudia egingo dute.



3. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleekin egin daiteke. Jarduera lehenengo zikloan egiten bada, eta beharbada baita bigarrenean egiten bada ere, irakasleak bildutako informazioa antolatzen lagundu beharko ditu ikasleak, eta beharbada azalpenak eman beharko dizkie ikasleei zenbait gauza argitzeko.

Materiala

- Papera, horma-irudi bat egiteko.
- Errotuladoreak eta margoak.
- Ikasleek ekarritako informazioa.

Metodologia

Talde-dinamika: talde txikiak eta talde handia.

Jardueraren nondik norakoak



Deilulek geure etxean ere bere herrialdearen, Mendebaldeko Sahararen, berri izatea nahi du, baina beharbada gure etxean badute bere herrialdearen berri jada! Hori dela eta, jeinuak honako jarduera hau proposatzen digu:

Jarduera honek hiru atal ditu:

- Informazioa biltzea.
- Informazioa komunean jartzea.
- Taldekide guztien artean bildutako informazioa antolatzea eta dokumentu bat sortzea.

Ikasleei etxean Saharari buruz galdetzea eta idatzizko, ahozko edo irudizko informazioa biltzea eskatuko zaie.


Bildutako informazioa antolatu eta taldeak egingo dira.

Ondoren, talde bakoitzak bildutako informazioa aurkeztuko du eta beste taldeetako kideek falta den informazioa osatuko dute. Jarraian Saharari buruzko horma-irudia egingo dute. Horretarako, kontuan hartu behar da informazioa okupaziopean dagoen lurraldeei buruzkoa edo errefuxiatuen kanpamenduei buruzkoa den. Irakasleak ezberdintasuna azalduko die ikasleei bi egoeren berri izan dezaten.

Azkenik egindako murala 1. jardueran egindako marrazkiarekin konparatuko dute eta ondorioak aterako dituzte: Kondairak irakurri ostean nola irudikatu genuen Sahara? Nolako da Sahara bildutako informazioaren arabera? ...



4. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleekin egin daiteke.

Materiala

- Saharako kondairak.
- Papera eta boligrafoa edo arkatza.
- Tea, datilak...

Metodologia

Talde-dinamika: Lana talde txikitan. Ondorioak talde handian eztabaidatuko dira.

Jardueraren nondik norakoak

Deilulek bere kulturaren berri eman nahi digu; Saharan jan ohi dituzten zenbait elikagai ezagutu ditzagun nahi du. Beste usain, zapora, etab. batzuk ezagutzeko gonbita luzatzen digu. Horretarako Deilulek honako jarduera berezi hau proposatzen digu:

Irakurri dituzuen kondairetan hainbat elikagai agertzen dira: elefante handiak basoiloari proposatzen dion apustuan, erleak apoari egiten dion gonbidapenean edo Fenekek ortuan duen oturuntzan.

Talde bakoitzak kondairetan agertzen diren elikagaien eta edarien zerrenda egingo du.

Talde bakoitzak bere zerrenda irakurriko du, eta zerbait falta izanez gero, gainontzeko taldeek zerrenda osatzen lagunduko diete.

Ondoren, zerrendan agertzen diren elikagai eta edariei buruz hitz egingo dute ikasleek.

Honako gai hauei buruz eztabaidatu daiteke:

- Zer jaten eta edaten dute kondairetan agertzen diren Saharako biztanleek?
- Ezagutzen al dituzue kondairetan aipatzen diren fruitu eta edariak? Zeintzuk ezagutzen dituzue eta zeintzuk ez?
- Probatu al dituzue? Zeintzuk probatu dituzue eta zeintzuk ez?
- Zuen etxeetan jaten eta edaten al dituzue elikagai eta edari horiek normalean? Zeintzuk jaten eta edaten dituzue eta zeintzuk ez?

Arraroak iruditzen zaizkien elikagai eta edariei buruz hitz egingo dute: teari, datilei...

Ikasleen adinaren arabera, nolakoak diren, nola hartzen diren, nork hartzen dituen... komentatu daiteke.

Datilak eraman daitezke ikasgelara eta ikasleek probatu egin ditzakete. Te berdea eraman daiteke eta nola egiten eta hartzen den komentatu daiteke.

ERANSKINA: Tea nola egiten den azaltzen duen testua.



5. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleekin egin daiteke.

Materiala

- Saharako kondairen liburua edo DVDa.
- Papera, margoak, etab.

Metodologia

Kondairak irakurri eta ulertu. Kondairen irakaspena ulertu. Talde txikitan egingo da lan eta ondoren landutakoa talde handian jarriko da komunean.

Jardueraren nondik norakoak

Lehdy basoiloaren eta elefante handiaren kondaira irakurri edo entzungo dugu.

Ondoren kondairaren edukia landuko dugu galdera batzuen bidez:

- Zein lotura dute bi pertsonaiek, elefanteak eta basoiloak?
- Nola agurtzen dute elkar topo egiten duten bakoitzean?
- Zergatik eztabaidatzen dute egunero bi protagonistek?
- Nola erabakitzen dute beren arazoak konpontzea?
- Nolako eragina du arazoak konpontzeko moduak bi protagonisten arteko harremanean?

Pertsona guztiak, elkar errespetatuta, elkarrekin bizi daitezkeela erakusteko ekarri digu kondaira hau Deilulek. Hori horrela balitz, dena errazagoa litzateke, jendea ez bailitzateke haserretuko, eta pozik biziko litzatekeelako. Ikus dezagun zein lan-proposamen ekarri digun gure jainuak:

Irudika dezagun beste amaiera bat istorio honentzat. Bukaera honetan elefantea eta basoiloa ez dira haserretuko, guztiz kontrakoa baizik. Binaka edo talde txikitan egin dezakegu lan eta amaiera hau komiki, kondaira edo antzerkitxo eran asma dezakegu. Ondoren asmatutako amaiera guztiak entzungo ditugu.



6. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleekin egin daiteke.

Materiala

- Saharako kondairen liburua edo DVDa.
- Oihalak, kuxinak, alfonbrak...
- Janaria

Metodologia

Kondairak irakurri eta ulertu. Kondairen irakaspena ulertu. Talde txikitara egingo da lan eta ondoren landutakoa talde handian jarriko da komunean.

Jardueraren nondik norakoak

Yarana apoaren eta arreba erlearen kondaira irakurri edo entzungo dugu.

Ondoren kondairaren edukia landuko dugu galdera batzuen bidez:

- Non bizi dira kondaira honen protagonistak?
- Zer egin ohi dute goizero?
- Zein txantxa egiten dio erleak apoari?
- Zein jaki prestatzen ditu erleak apoa askaltzera gonbidatzen duenean?
- Zergatik haserretzen dira apoa eta erlea?

Deilulek kontatutako kondaira honetan gure gauzak besteekin partekatzea zeinen garrantzitsua den irakasten digu. Ez apoak ezta erleak ere ez dute beren askaria partekatzen eta azkenean, janariaz elkarrekin gozatu ordez, bakoitzak berea jaten du bakar-bakarrik. Ziur aski, beren askariak partekatu izan balituzte dena askoz gozoagoa izango zen.

Partekatu dezagun gure askaria gainontzekoekin. Ikasle bakoitzak zerbait ekarriko du etxetik, bakoitzak nahi duena. Ondoren klasea jaima bat balitz bezala apainduko dugu, oihalak eta kuxinak erabiliz, eta janaria lurrean jarriko dugu. Denak elkarrekin eseriko gara eta ekarri dugun janariaz gozatuko dugu.



7. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleekin egin daiteke.

Materiala

· Saharako kondairen liburua edo DVDa.

Metodologia

Kondairak irakurri eta ulertu. Kondairen irakaspena ulertu. Talde txikitan egingo da lan eta ondoren landutakoa talde handian jarriko da komunean.



Jardueraren nondik norakoak

Fenek azeri gosetiaren kondaira irakurri edo entzungo dugu.

Ondoren kondairaren edukia landuko dugu galdera batzuen bidez:

- Kondairan aipatzen den oasiko ortuan zein fruitu zeuden?
- Zerekin egiten zuen amets gauero Fenekek?
- Zer nahi zuen irrikaz Fenekek?
- Zer egin zuen Fenekek bere ametsa bete ahal izateko?
- Nola sentitu zen Fenek behin bere ametsa beteta?
- Zer gertatu zitzaion bere ametsa bete ostean? Zergatik?

Gure ametsak eta nahiak betetzen saiatzea ona dela kontura gaitzen kontatu digu Deilulek kondaira hau. Hala ere, kontuz ibili beharra dago eta gure inguruan ditugun pertsonak errespetatu behar ditugu. Deilulek zera galdetzen digu: Zeintzuk dira zuen ametsak?

Deiluli erantzungo diogu. Gutun bat idatzi diezaiokegu gure ametsak zeintzuk diren azaltzeko. Ondoren gelan irakurri dezakegu ikaskideek gure ametsak zeintzuk diren jakin dezaten.



8. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleekin egin daiteke.

Materiala

- Saharako kondairen liburua edo DVDa.
- Loreontziak eta platerak.
- Lurra.
- Hainbat motatako haziak.
- Ura.
- Margo akrilikoak eta pintzelak.

Metodologia

Kondairak irakurri eta ulertu. Kondairen irakaspena ulertu. Talde txikitan egingo da lan eta ondoren landutakoa talde handian jarriko da komunean.

Jardueraren nondik norakoak

Lehdy basoiloaren eta elefante handiaren kondaira irakurri edo entzungo dugu.

Ondoren kondairaren edukia landuko dugu galdera batzuen bidez:

- Zergatik haserretu dira basoiloa eta elefantea?
- Nola saiatzen dira konpontzen?
- Zergatik uste duzu saiatzen direla era horretan konpontzen?
- Zein ondorio dauzka arazoa era horretan konpontzen saiatzeak?
- Bururatzen al zaizu arazoa konpontzeko modu parte-hartzaileagorik?

Denok batera lan eginez gero, lortutako emaitzak hobeak izango direla irakatsi nahi digu Deilulek kondaira edo alegia honen bidez. Basoiloak eta elefanteak elkarrekin lan egin izan balute, beharbada ortuek ekoizpen hobe izango zuten eta biak alaiago egongo lirateke. Horregatik Deilulek jarduera hau proposatzen digu:

Hainbat landare, lore edo belar landatuko ditugu lorontzietan. Hasteko margo akrilikoak eta pintzelak erabiliz lorontziak apain ditzakegu, esate baterako, gai bat aukeratu eta gai horrekin zerikusia duten marrazkiak egin ditzakegu. Ondoren, denon artean, haziak landatuko ditugu. Landareak zainduko ditugu eta bide batez gela apainduko dugu. Horretarako, landareak ureztatzeko, ihartutako hostoak kentzeko eta abarrerako txandak antolatuko ditugu.



9. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleekin egin daiteke.

Materiala

- Saharako kondairen liburua edo DVDa.
- Mozorroak egiteko materiala, esate baterako, oihalak, zabor-poltsak, kartulina, etab.

Metodologia

Kondairak irakurri eta ulertu. Kondairen irakaspena ulertu. Talde txikitan egingo da lan eta ondoren landutakoa talde handian jarriko da komunean.

Jardueraren nondik norakoak

Lehdy basoiloaren eta elefante handiaren kondaira irakurri edo entzungo dugu.

Ondoren kondairaren edukia eta Saharako kulturaren eta gurearen artean dauden antzekotasunak landuko ditugu galdera batzuen bidez:

- Nola esaten da "basamortua" hassaniaz? / eta ezagutzen dituzun beste hizkuntzetan?
- Nola agurtzen dute elkar basoiloak eta elefanteak? / Nola agurtzen dugu guk elkar ezagun batekin topo egiten dugunean?
- Nolako harremana zuten bi auzokideek? / Nolakoak dira guk auzokideekin ditugun harremanak?
- Pertsonaia hauek oasi batean bizi dira, nolakoak irudikatzen duzue? / Nolakoak da gu bizi garen lekua?
- Nola esaten da "ortua" hassaniaz? Zein fruitu uste duzue landatu dituztela basoiloak eta elefanteak? / Zein fruitu landatu ohi ditugu gure ortuetan?
- Ikusi ahal izan duzuen moduan, Saharan hondartza eta itsasoa ere badaude... / Nolakoak dira gure hondartzak?
- Zergatik haserretu dira elefantea eta basoiloa? / Gu ere haserretzen al gara gure lagunekin? Zergatik?

Deilulek kontatzen digu kultura bereak animaliei giza ezaugarriak ematen dizkiela gizakion zenbait jarrera eta egoera antzezteko. Pertsonaia hauek zintzoak, gaiztoak, atseginak, ezatseginak, maitagarriak, zakarrak... izan daitezke eta batzuetan, rol berbera ematen zaio beti animalia berari. Hori horrela, hauek dira kondaira kontalariak gehien aipatzen dituztenak:

- a.** Lehoia (bábe hassaniaz) erregea da, tiranikoa eta ongilea aldi berean, handitasunaren, legearen nagusitasunaren eta indarraren ikurra da.
- b.** Azeria (fenec hassaniaz), txakala bezalaxe, adimenaren eta azkartasunaren, ontasunaren, ikurra da.
- c.** Trikua (ganvud hassaniaz) txikien adimenaren ikurra da; itxuraz ahula izan arren arriskutsua da eta arazoak izaten ditu gainontzeko animalia gehienekin.
- d.** Elefantea (vil hassaniaz) lasaitasunaren, indar bakezalearen, sineskortasunaren eta baldartasunaren ikurra da; egiten dioten gaitza ahazten duen pertsonaia da.
- e.** Bildotsa (naya hassaniaz) pertsonaia lasaia da, lotsatia, beldurtia eta sekula gaitzik egiten ez duena.
- f.** Sugea (lihnach hassaniaz) ezkutuko animalia da, misterioitsua eta arriskutsua.
- g.** Leopardo (mundrish hassaniaz) animalien epailea da, oso azkarra da eta animaliek beragana jotzen dute beren arazoak konpontzera.

Irudikatu dezagun oasi batean gaudela. Kartulina gainean, paper batean edo zatar-paperean marraz dezakegu handi-handi. Talde bakoitzak oasi horretan gertatzen den istorio bat, Lehdy eta elefante handiaren antzekoa, asmatu behar du eta antzeztu. Pertsonaiak animaliak izango dira.

Hirugarren zikloko neska-mutikoei goian aipatutako animalia-pertsonaiak banatu dakizkieke eta Saharako kulturaren dituzten ezaugarriak kontuan hartuz istorioa asma dezatela eskatu.



10. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Jarduera hau Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleei zuzenduta dago. Hala ere, lehenengo zikloko ikasleekin ere egin daiteke karabanarako elikagai-bilketa kanpaina ezagutzen badute edo parte hartu badute.

Materiala

- Dokumentua, "Karabana" albistea.
- Murala egiteko papera.
- Errotuladoreak.

Metodologia

Lana talde txikitan eta talde handian. Dinamika: "Ideia jasa".



Jardueraren nondik norakoak

Deiluli, Saharako basamortuko jeinuari esker, saharar herriari buruzko gauza asko ikasi ditugu. Herrialdea, paisaiak, biztanleak, kultura... ezagutzen ditugu. Baina une honetan saharar gehienak ez dira beren herrialdean bizi. Deilulek goibel kontatzen digu duela urte asko gerra izan zela Saharan eta biztanleek gerratik ihes egin behar izan zutela. Beste lurralde batera joan ziren eta hantxe bizi dira duela 32 urtetik. Errefuxiatu gisa bizi diren lurralde hau basamortua da eta bizimodua oso gogorra da tenperaturak muturrekoak baitira (neguan hotz handia egiten du eta udan, berriz, bero izugarria) eta baliabide gutxi (ura, elikagaiak, lantzeko lurra, animaliak, etab.) daudelako. Deilulek zera galdetzen digu: Nola bizirauten du herri honek horren bizi-baldintza gogorretan? Alde batetik, bere ahalegin eta indar izugarriari esker eta bestetik, beste herrialde batzuek ematen dioten laguntzari esker.

Berria irakurriko dute eta ikasleek gai honi buruz duten informazioa biltzeko elkarrizketari ekingo zaio "ideia-jasa" teknikaren bitartez: ikasleek egiten dituzten ekarpenak arbelean idatziko dira edo "papelografoa" egingo da oharrik gehitu gabe.

Ondoren bigarren saiorako etxean informazio gehiago biltzeko gonbita egingo zaie ikasleei.

Bigarren saioan "ideia-jasa" egingo da berriro bigarren "papelografo" batean eta aurrekoa aldatu edo osatuko da.

Ondoren ikasleei honako galdera hauei buruz hausnartzeko esango zaie:

- Zergatik da beharrezkoa karabana?
- Zergatik parte hartu beharko genuke karabanan?
- Elkartasun karabanarik ez balego, zer?

Elkarrizketaren ostean, karabanari buruzko talde osoaren ideiak laburbiltzen dituzten hiru edo lau esaldi aukeratuko dituzte eta mural-paperean idatziko dituzte.

ERANSKINA: Karabanari buruzko albistea.



11. Jarduera



Nori zuzenduta dago jarduera

Jarduera hau Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleei zuzenduta dago. Hala ere, lehenengo zikloko ikasleekin ere egin liteke "Oporrak bakean" programaren bidez etorri den neska-mutikoren bat ezagutzen badute.

Materiala

- Dokumentua, "Oporrak bakean" albistea.
- Murala egiteko papera.
- Errotuladoreak eta margoak.

Metodologia

Lana talde txikitan eta talde handian. Dinamika: "Ideia euria".

Jardueraren nondik norakoak

Deilulek atsegin du neska-mutikoei irakastea, horregatik Saharari buruzko eta saharar herriaren inguruko gauzak kontatuz pasa ditu hainbat egun. Amaitzeko errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren neska-mutikoei nolako bizimodua duten ezagutu dezagun nahi du.

Eskolara egunero joaten direla, etxeko lanak (edo jaimakoak) egiten laguntzen dutela eta jolastu egiten dutela kontatzen digu. Baina udan ez dira neska-mutiko sahararren barreak eta jolasak entzuten. Badakizue zergatik?

Berria irakurriko dute eta ikasleek gai honi buruz duten informazioa biltzeko elkarrizketari ekingo zaio "ideia-jasa" teknikaren bitartez: egiten dituzten ekarpenak arbelean idatziko dira edo "papelografoa" egingo da oharririk gehitu gabe.

Ondoren bigarren saiorako etxean informazio gehiago biltzeko gonbita egingo zaie ikasleei.

Bigarren saioan "ideia-jasa" egingo da berriro bigarren "papelografo" batean eta aurrekoa aldatu edo osatuko da.

Ondoren, "Oporrak bakean" programaren bitartez gure herrialdera etortzen diren neska-mutikoak lehenengo jardueran egin zuten muraleko zein toki edo aldetan bizi diren pentsa dezatela eskatuko diegu.

Amaitzeko, saharar errefuxiatuen kanpamenduak agertzen diren mapa erakutsiko diegu ikasleei saharar errefuxiatuak zein egoeratan bizi diren uler dezaten.

ERANSKINA: "Oporrak bakean" albistea eta mapak.

